



2025-26 IKASTURTEKO IPES-en **MEMORIA**

Sarrera:

2025ko irailetik eta 2026ko ekaina bitartean egindako lanaren laburpen saiakera da honokoa. Gauza gehiago faltako dira -ziur- baina egindako ekimenen bilduma izan nahiko luke lantxo honek Ipes elkartearen bueltan dabilzan eragile, kolaboratzaile eta bazkidek, ezagutza izan dezan.

Ipes elkarteak dituen lan-lerroen garapenari erreparatuko diogu:

Nazioarteko hitzaldiak:

Mundubat fundazioak sustaturik eta Gallartan kokatua dagoen Martin Etxea errefuxiatuentzako aterpearekin elkarlana bultzatu dugu. Haien herrialdeetan jazarriak diren militante politikoei aterpea ematea du xedea egitasmoak: <https://www.martinetxea.eus/>

Horren bidez, herrialde ezberdinetako borroken berri ezagutu ditugu bertan dauden bizi lagunei ahotsa emanez: Maputxeen herria, Argentinako sindikalismoa, El Salvador, Guatemala... izan ditugu hizpide.

Beste plano batean, nahiz eta lotura eduki, Palestinari arreta jartzeko aukera izan dugu ASTRAn egindako hitzaldiarekin Fouad Baker ekintzaile palestinararekin, ekainean; edota Fredy Morales aktibista colombiarraren liburu aurkezpenean, martxoan.

“La maleta de Urdaibai-Urdaibaiko maleta” liburua(k):

Txema Garciak idatzitako eleberri distopikoa argitaratu dugu. Baina ez hori bakarrik: euskaraz itzuli dugu Iñaki Aurrekoetxea Ipes elkarteko kolaboratzailearekin, eta behin liburuaren kostuak ordainduta, ateratako dirua Gernika-Palestina herri ekimenaren bidez Palestinara bideratu dugu, eta, guztira, 1422 euro izan dira.

Horrekin batera, bi helburu lortu ditugu: 20 aurkezpen egin ditugu Bizkaian barrena liburu argitalpenekin, eta, bestetik, Durangoko Azokara berrikuntza bezala eramateko aukera eskaini digu proiektuak. Eta, zer esanik ez, Urdaibai eztabaidagai dagoen honetan, gure gogoeta kolektiboari ekarpena egiteko bidea bihurtu zaigu ere.

Durangoko Azoka:

Urte batzuk generamatzan bertaratu barik, eta bi proiektu aurkezteko aukera eman digu azken edizioak: aipaturiko Urdaibaiko liburuak, eta Gernika Memoriaren Lekuko plataformak (Ipes elkartearen partaidea dela) argitaraturiko izen bereko liburua (Gernika eta bere herri memoriaren borrokaren sintesi lana eta 2025ko maiatzean argitaratu genuena).

Horrekin batera, aurretik genituen lanak eraman, eta Guggenheim Urdaibai STOPeri, adibidez, bere egutegiaren salmentarako espazio utzi izan diogu ere, gure erakuts mahaian.

Abenduan, urtero legez, Zirika gunean egiten den herri mugimenduko azokan ere izan ginen.

Bi liburuen ber argitalpenak:

Oiane Valeroren “Euskal langile andreak” eta marxismo lan taldearen “Klaseak borrokan” liburuxkaren ber argitalpena egin ditugu aurten ere, Durangoko azokatik eratorritako eskaerari erantzunez, bi liburu hauek eskuragarri izaten jarraitzeko etorkizunean.

Gernikako bonbardaketaren 89.urteurrena:

Bonbardaketaren testuinguruan Gernika Memoriaren Lekuko-k egitarau zabala antolatzen du eta Ipes elkarteak beti, ekimen bat (gutxienez) egiten du. Aurten, Joseba Garmendia ikerlariaren hitzaldia antolatu genuen Garapen agentziari buruzkoa (Urdaibaiko eztabaidari ekarpen berria eginez).

Euskal Herria digitala:

Hainbat fundazio eta eragileren artean sorturiko egitasmoaren partaideak gara hastapenetik. Burujabetza tekno zientifikoa du ardatz, eta aurtengo apirilean Oreretan egindako jardunaldiak izan dira lerro honen garapen hizpide, eta zenbait artikuluren argitalpena gogoeta kolektiboan txertatzeko.

Komunikazio baliabideak:

Arlo honetan ere aurrerapen txikitxoak izan ditugu: gure webaren eguneraketa (www.ipes.eus) horren lekuko, edo eta hilabetero bidaltzen dugun info-buletina izan daitezke esanguratsuenak.

Bilbon, 2026ko uztailean

